

IL AZALPEN PROBA • <i>Printze txikia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Nik arrazoi sendoak nituen printze txikia B 612 asteroidetik etorria zela pentsatzeko. Asteroide hori behin bakarrik ikusi dute; astronomo turkiar batek bistaratu zuen, 1909an.

Garaitsu hartan, astronomoak Nazioarteko Astronomia Biltzar batean eman zuen bere aurkikuntzaren berri. Baina haren janzkera ikusirik, inortxok ere ez zion sinetsi. Horrelakoak dira pertsona nagusiak.

B 612 asteroidearen onerako, diktadore turkiar batek heriotza zigorrarekin mehatxatu zituen europar erara janzten ez ziren bere herritarrak. Astronomo turkiarrak 1920an berriro eman zuen bere deskubrimenduaren berri, traje dotore batekin apain baino apainago jantzirik. Eta oraingoan denak bat etorri ziren berarekin.

IL AZALPEN PROBA • <i>Printze txikia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

–Bostehun milioi zer, baina –errepikatu zuen printze txikiak; izan ere bere bizitzan behin galdera bat eginez gero, ez baitzuen sekula ahazten.

Negozio gizonak burua goratu zuen.

–Badira berrogeita hamalau urte planetan honetan nagoela, eta bitarte honetan hiru bider baino ez didate enbarazu egin. Lehenengo aldia orain dela hogeita bi urte izan zen, liztor bat batek daki nondik heldu zenean. Sekulako harrabotsa ateratzen zuen eta lau akats egin nituen batuketa batean. Bigarren aldia orain dela hamaika urte izan zen, erreuma krisi baten eraginez. Ez dut nahikoa kirol egiten. Ezin dut denbora ibilian alferrik galdu. Serioa naiz ni, gero! Hirugarren aldia..., oraingo hau da! Beraz, bostehun eta bat milioi...

–Milioi zer, baina?

Negozio gizonak bakean egoteko aukerarik ez zegoela ulertu zuen:

–Zeruan noizbehinka ikusten diren gauza ñimiño horien milioiak.

–Euliak?

–Ez, ba, gauza ñimiño dirdaitsuak.